

«Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira»

Euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa La Casillatik abiatuko da, 17.30ean, "Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" lelopean. Martxa astebururo senideak karteletara bisitan eramaten dituzten boluntarioen furgonetek irekiko dute. Udaletxean bukatuko da.

Segurtasun eta lan txandak

> Oro har **400 boluntario** arituko dira hainbat puntu eta txandatan mobilizazioa posible egiteko.



Ekitaldia

- > Bertsolariak: **Beñat Gaztelumendi** eta **Alaia Martin** izanen dira.
- > Hizlariak: **Iñaki Olasolo** kazetariak gaztelaniaz egingen du irakurketa, **Nagore Garcia** Herrirako kideak euskaraz eta **Laurence Hardouin** Bake Bideako kideak frantsesez. **Ainhoa Moiuak** zeinuen hizkuntzara itzuliko du.
- > Musika: **Josu Zabala**, **Txuma Murugarren** eta **Pettik** "Herrira noa" abestuko dute bukatzeko.
- > Pantailak: Jende anitz espero dutenez, pantaila handi bat jarriko dute ibilbidean zehar bukaerara iristen ez direnek ekitaldia ikusteko.

Eguraldia



> **Aurreikuspenen** arabera, euri lardatsa eta mendebaldeko haizea petrala izanen dira arratsaldean.



AUTOBUSEN APARKALEKUA



BASURTO

17.30ean manifestazioaren **IRTEERA** LA CASILLA

AMETZOLA

BILBO

ABANDO

MATIKO

Manifestazioaren **AMAIERA** UDALETXEAREN PLAZA

ALDE ZAHARRA

AUTOBUSEN ETORRERA: **GIPUZKOA - LAPURDI BAXENABARRE - ZUBEROA** Etxebarria parkea

AUTOBUSEN ETORRERA: **ARABA - NAFARROA - BIZKAIA** Zabalburu plaza eta Juan de Garay

Etxebarria parketik nola jaitsi:

- > Unamuno plazara iristen diren **eskailerak**
- > Begoñako **igogailua** (0,45 €, haurrak doan)
- > **Metroko** igogailua: Parkean, metroko Alde Zaharreko irteerara garamatzen igogailua dago
 - > **Udaletxerako aldapa** (Gas plazatik)
 - > **Bilbobus** zerbitzua



NAIZEN ZUZENEAN

> **Hamaika Tebistarekin** elkarlanean, 16:30etik aurrera saio berezia eskainiko du NAIZek.

> **Info7 irratia**ren saioa ere aditzen ahalko da. Ordu berean izanen da, La Casillako kioskoan. Iritziak jasoko dituzte eta gero manifestazioa jarraituko dute.